

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure bezero nagusiak guk erositako erroa alokatzen dabenak izango dira, emakumeak eta Bilbo ingurukoak.

Errora alokatuko daben bezeroak bereganatzeko:

Errora alokatuko deuskuen bezeroak lortzeko sare sozialak erabiliko doguz. Hau da, gure Instagram kontuan profilan historio iraunkorrak eskegiko doguz gure proiektuaren atal guztiak azaltzeko: nortzuk garan, zein dan gure asmoa, zelan jarri harremanetan gugaz, zein motatako erroa aurkitu ahal daben lokalean... Argazki eta Reel-en bidez, alokatzeko eskaintzen dogun erroa erakutsiko dogu, bezeroek lokala bisitatu aurretik erroa ikuskatu ahal izateko. Argazkietan erroari buruzko informazioa zehaztuko dogu: tamainua, marka, alokailuaren prezioa...

Badakigu gazteagoek Tik Tok erabilten dabela Instagram baino gehiago, beraz, Tik Tok-eko kontu bat sortuko dogu jenteak gure proiektua eta gure erroaren barri izateko. Era berean, adineko pertsonak, normalean, ez dabez sare sozialak erabilten, hortaz, tokiko irrati kateetan iragarkiak grabatuko doguz jenteak negozioaren barri izateko.

Aldi berean, guk eskaintzen dogun erroa alokatzen daben bezeroak mantentzeko, gure bezeroakaz Gmail eta Instagram bidez kontaktuan jarriko gara alokatzeko daukagun erroaren barriaren barri emoteko.

Harremana eta laguntza pertsonala

Bezeroek galderaren bat izan ezker, edo gugaz harremanetan jarri nahi ezker, modu fisikoan hitz egin lekie gugaz, gure lokalera joaten, edo Instagram, Tik Tok, Gmail edo eskuragarri jarriko dogun telefonoaren bidez kontaktatu ahalko gaitue.

Gainera, laguntza pertsonala eskainiko dogu lokalean bertan. Hau da, bezeroak lagunduko doguz jantziak aukeratzen, horreek konbinatzen... horrela tratua pertsonala izango da.